

PROGRAMAZIO LABURRA

IKATETXEAREN IZENA	ARALAR BHI										2022-23
ARLOA / GAIA	EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA								DATA		2022-10-28
MAILA	DBH-1		DBH-2		DBH-3	X	DBH-4				

1	ARLOAREN GUTXIENEN KOMPETENTZIAK
ZEHAR KOMPETENTZIAK K1- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. K2- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia. K3- Elkarbizitzarako konpetentzia. K4- Izaten ikasteko konpetentzia. K5- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia. DISZIPLINA BAITAKO KOMPETENTZIAK K6- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia. K7- Hizkuntza eta Literatura komunikaziorako konpetentzia. K8- Matematikarako konpetentzia. K10- Teknologiarako konpetentzia. K11- Arterako konpetentzia. K12- Konpetentzia motorra K13- Zientziarako konpetentzia.	

2 HELBURUAK

*Letra lodiz idatzita dagoena gutxiengotzat jotzen dena da.

Ahozko komunikazioa

- **Ahozko testu mota desberdinak entzun, ulertu eta aztertzea** K1,K2,K7
- **Ahozko testuak sortu** eta edukiak planifikatzea

K1,K2,K7

- Ahoskera eta intonazio egokia erabiltzea. K3,K5,K7

Komunikazio idatzia

- **Idatzizko eta irakurritako testuen egitura antzematea:** igorlearen asmoa eta ideiak ordenatuz. K1,K2,K7
- Idatzizko testuak aztertzea. Ideia nagusiak eta 2.mailakoak identifikatu eta eskemak burutuz. K1,K2,K7, K10
- Lexiko ezezagunaren esanahia bilatu eta testualizatzea. K1,K2,K7
- **Idatzizko testuak ezagutu eta sortzea:** koherentzia, kohesio eta zuzentasunez. K1,K2,K7
- Testu idatziak antolatu eta planifikatzea, egitura jakinak, eskemak, erabiliz. K1,K2,K7, K10

Autozuzenketarako tresnak lantzea. K1,K2,K7

Literatura

- **Gazte-literaturako lanak**, tradizionalekoak eta herri-literaturakoak **irakurtzea:** gogotsu eta gozatuz. K2,K7
- Olerkiak eta bertsoak entzun eta errezipitatzea. K2,K7, K8
- Antzerki-lanak dramatizatuz irakurtzea. K2,K7,K11
- Literatur asmoko testuak sortzea: ipuinak. K2,K7
- Euskal abestiak ezagutu,aztertu eta ikastea. K1,K2,K7

Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Ahozkoan eta idatzizkoan ematen diren fonema eraldaketak zuzentzea edo gainditzea. K1,K2,K7
- Testu-lokailuak antzeman eta erabiltzea; zehazki lekuari,denborari eta antolaketari dagozkionak. K1,K2,K7
- **Aditz-jokoak eta komunztadurak eta deklinabidea ezagutzea eta zuzen erabiltzea.** K1,K7
- Paragrafoa esanahidun unitatetzat hartzea eta puntuazioa idatzia antolatzeke mekanismotzat. K1,K7
- **Oinarrizko gramatika-kategoriak ezagutzea** K1,K7
- Ortografia-zuzentzaileak erabiltzea. K1,K7, K10
- Testuetako hizkuntza zuzentzea eta gramatika berrikusteko zuzenketa-fitxak erabiltzea. K1,K2,K7

Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna existitzen direla onartu eta horretarako beste hizkuntzetako testuak bilatzea, irakurtzea eta entzutea. K1,K2,K5,K6
- Euskararen erabilerari lehentasuna ematea, pertsonen arteko harremanetan eta ikaskuntza egoeretan. K3,K7
- **Hizkuntza guztienganako jarrera positiboa lantzea.** K3,K5,K6

2					
EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
2	KOMUNIKAZIOA 1: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Itxaspeko altxorra • Irakurketa • Entzungaia • Mintzamena • Idazmena • Testua aztertzen (Itsas handian)	2	KOMUNIKAZIOA 5: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Uraren jauziak • Irakurketa • Entzungaia • Mintzamena • Idazmena • Testua aztertzen (Tearen bidea)	2	KOMUNIKAZIOA 9: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Ontzi bitxiak • Irakurketa • Entzungaia • Mintzamena • Idazmena • Testua aztertzen (1912ko enbatak eramandako arrantzaleak)
2	Gramatika • Izen Sintagma: adjektiboa • Izen sintagma: izenlagunak	2	Gramatika • Aditza: indikatiboko baldintza • Perpauseko osagaien ordena	2	Gramatika • Ahalera NOR, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK • Helburuzko perpausak
2	Komunikazioa (Egiten jakin) • Aurkezpen-bideo bat egitea • Komiko bat danborradan (entzumena) • Gertakari historikoa: Rosseta harria, aurkikuntza bikoitza!	2	Komunikazioa (Egiten jakin) • Irudiak ordenatzea eta azaltzea • Lehenagoko gazteen kortejatzea (entzumena) • Albisteak: dantza perfektu baten gisan	2	Komunikazioa (Egiten jakin) • Denboraren lerro bat osatzea • Txikiak handiari aurre egin zioneko (entzumena) • Akta: Gelako bilera: ikasketa-bidaia
1	Lexikoa eta ortografia • Joera-atzizkiak • BAT eta BATZUK	1	Lexikoa eta ortografia • Kortesia-ko esapideak • Siglen erabilera	1	Lexikoa eta ortografia • Artearen arlo lexikoa • Puntuak, koma eta puntu eta koma
1	Literatura (Lore jokoak)	1	Literatura (Euskalki literarioak)	1	Literatura (Literatur bandak: Pott eta Lubaki)
1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak
1	Gaitasunen neurketa	1	Gaitasunen neurketa	1	Gaitasunen neurketa
2	KOMUNIKAZIOA 2: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Denok batera • Irakurketa • Entzungaia • Mintzamena • Idazmena • Testua aztertzen (Comète. Ihesbide-sarea)	2	KOMUNIKAZIOA 6: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Maite nau, ez nau maite... • Irakurketa • Entzungaia • Mintzamena • Idazmena • Testua aztertzen (Pilularen liluraren kontra)	2	KOMUNIKAZIOA 10: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Pilotaren atzetik • Irakurketa • Entzungaia • Mintzamena • Idazmena • Testua aztertzen (Frontoia arteleku)
	Gramatika		Gramatika		Gramatika • Aditza: ahalera NOR-NORI

2	• Deklinabidea: kasuak eta mugagabea • Aditz sintagma: posposizioak	2	• Aditza: subjuntiboa NOR eta NOR-NORI • Perpaus osagarri izenlagunak	2	• Ondorio-perpausak
2	Komunikazioa (Egiten jakin) • Proiektu bat aurkeztea • Boluntario-lanaren onurak (entzumena) • Dibulgazio-testua: arazoa-konponbidea (Kilogramo berria denontzat)	2	Komunikazioa (Egiten jakin) • Gida-lanak egitea • Holtzarteko arroiak eta zubia (entzumena) • Erreportajea: Euskara eta teknologia berriak	2	Komunikazioa (Egiten jakin) • Argazki-galeria egitea • Euskal grafiti (entzumena)
1	Lexikoa eta ortografia • Gaia adierazten duten atzizkiak	1	Lexikoa eta ortografia • Hitzen irudizko esanahia • Laburduren erabilera	1	Lexikoa eta ortografia • Eskabidea: eskabide-orria
1	Literatura (Bertsolaritza I: XIX. mendea)	1	Literatura (Euskal ohitura-eleberria)	1	Literatura (Itzulpengintza)
1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak
1	Gaitasunen neurketa	1	Gaitasunen neurketa	1	Gaitasunen neurketa
1					
1					
	KOMUNIKAZIOA 3:		KOMUNIKAZIOA 7:		KOMUNIKAZIOA 11:
	Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak:		Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak:		Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak:
2	Elkar ulertzeko gai	2	Adimena jostailu	2	Urrezko eskuak
	• Irakurketa • Entzungaia • Mintzamena • Idazmena • Testua aztertzen		• Irakurketa • Entzungaia • Mintzamena • Idazmena • Testua aztertzen		• Irakurketa • Entzungaia • Mintzamena • Idazmena • Testua aztertzen
	(Bikiak eta hizkuntza sekretua)		(Adimenaren gaitasuna)		(El Doradoren kondaira eta mitoa)
	Gramatika		Gramatika		Gramatika
	• Aditzaren moldeak: aditz-izena		• Aditza: subjuntiboa NOR-NORK		• Aditza: agintera NOR-NORI • Lokailuak I
2	Komunikazioa (Egiten jakin)	2	Komunikazioa (Egiten jakin)	2	Komunikazioa (Egiten jakin)
	• Ikerketa-lana burutzea • Haur-otsoaren istorio miragarria (entzumena)		• Konparazio-perpausak • Gailu baten funtzionamendua azaltzea		• Dokumental ziklo bat antolatzea • Odyssey eta joan-etorriko altxorra (entzumena)
2	• Arautegia: Bizimodu iraunkorra eramateko dekalogo	1	• Makina ala gizakia? (entzumena) • Eskema: musika-tresnak	2	• Aurkezpen-gutuna
	Lexikoa eta ortografia		Lexikoa eta ortografia		Lexikoa eta ortografia
	• Modu-atzizkiak • Erdal izen berezien deklinabidea		• Hitzak sortzeko bideak • Maileguen idazkera		• Zientziaren arlo lexikoa • Ordenagailuz idaztea: letra etzana/lodia
1	Literatura (Bertsolaritza II: tradiziotik modernitatera)	1	Literatura (Narrazio labur modernoa)	1	Literatura (Euskal antzerkia)
	Amaierako jarduerak		Amaierako jarduerak		Amaierako jarduerak
	Gaitasunen neurketa		Gaitasunen neurketa		Gaitasunen neurketa

1		1		1	
1	KOMUNIKAZIOA 4:	1		1	KOMUNIKAZIOA 12:
1	Ataria, irakurmena eta			1	Ataria, irakurmena eta
1	komunikazioa jarduerak:			1	komunikazioa jarduerak:
	Nik zuri, zuk niri		KOMUNIKAZIOA 8:		Bikingo beldurgarriak
	• Irakurketa		Ataria, irakurmena eta		• Irakurketa
	• Entzungaia		komunikazioa jarduerak:		• Entzungaia
2	• Mintzamina	2	Ilargiaren eraginez	2	• Mintzamina
	• Idazmena				• Idazmena
	• Testua aztertzen				• Testua aztertzen
	(Historiaren lekuko itsaskorrak)				(Itsasoko herrialdeen
	Gramatika				misterioa)
	• Aditz laguntzaileak				Gramatika
	indikatiboan				• Aditzaren berrikusketa
	• Aditz sintagma: zenbait				• Lokailuak II
	aditz berezi				Komunikazioa (Egiten jakin)
	Komunikazioa (Egiten jakin)				• Zergatiaz eta
	• Informazioa osatzea :				ondorioez hausnartzea
2	ORAIN astekari askea	2		2	• Inken azken gotorleku
	• Kromoen tratuan		Komunikazioa (Egiten jakin)		misteriotsua
	(entzumena)		• Denbora mugatuan		(entzumena)
	• Iritzi-artikulua: atzerrian		• aurkezpena egitea		• Curriculum: nire
2	hizkuntzak ikasteko bekak:	2	• Stonehenge-ko misterioa,	2	curriculum
	aukera aparta		argituta (entzumena)		Lexikoa eta ortografia
	Lexikoa eta ortografia		• Txostena: Gazteak,		• Interneten arlo lexikoa
	• Ekintza eta ondorio-		kultura eta teknologia berriak		• Ortografia-arauak
	atzizkiak		Lexikoa eta ortografia		teknologia berrietan
	• ARAZlren idazkera		• Mailegutza		Literatura (Saiakera)
	Literatura (Sarako eskola)		• Parentesiak eta kakotxak		Amaierako jarduerak
	Amaierako jarduerak	1	Literatura (Literatur teknika		Gaitasunen neurketa
1	Gaitasunen neurketa		berriak)	1	
		1	Amaierako jarduerak		
			Gaitasunen neurketa		
		1		1	
		1		1	
		1		1	
3	IKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA				

METODOLOGIA

Euskara eta Literatura arloa lantzeko erabiliko ditugun printzipio metodologikoak hauexek dira:

1. Aurrezagutzaren printzipioa: Eskolara baino lehen eta eskolatik at ikasitako gauza asko dago ikaslearen altxorrean, areago mundu mugikor eta aldakor honetan. Dakitenetik abiatuz eta elkarrizketa sortuz abiatu beharra dago, funtzio hori betetzera dator ataria jarduera.
2. Egokitzapenaren printzipioa: Hezkuntzaren izaera hezitzailea indartu egin behar da. Ikasleak gauzak egiten jakiteko prestatu behar ditugu, hau da errealitatean aplikatzen den jakintza, askotariko testuinguruetara egokitzeko aukera eman eta izaera integratzailea duena (jakintzak, prozedurak eta jarrerak). Gure ikasleek jakin eta egiten jakin behar dute, jakintza eta ekintza uztartuz.
3. Funtzionaltasunaren printzipioa: Bizitzarako balio dion zerbait bezala hartu behar du ikasleak eskolako jarduna. Horregatik du halako garrantzia zertarakoak. Beraz, haien errealitatean eta interesetan oinarritzen diren jarduerak proposatzen saiatu gara.
4. Komunikazio-printzipioa: Hizkuntza elkarrekintzan erabiliz eta besteekin gauzak egiteko erabiliz garatzen da. Komunikazioa izango da irakaskuntza-ikaskuntza estrategia nagusia, prozesuaren giltzarria; hizkuntzaren erabilera esanguratsua eta eraginkorra eraikitzean datza. Ikasleek hainbat eratako komunikazio-egoeren aurrean aritzeko baliabideak lor ditzaten testu-genero mota desberdinak landuko dituzte, beren bizitza pertsonalean eta profesionalean beharko dituztenak.
5. Printzipio eraikitzailea: Ikasketa proiektu jardueren bidez ikasleak partehartze aktiboa du jakintzaren sortze prozesuan, beti ere, irakaslearen laguntzarekin. Jarduera hauek ikasleak motibatu egiten dituzten tresna didaktikoak dira, ikasleak bere ezagutza propioa autonomikoki eraikitzen duelako eta jakintza-maila diferenteetara egokitzen direlako, norberaren ahalmenera moldatuz. Proiektu osoen bidez erraztu egiten da oinarritzko gaitasunak ikasleei helarazteko bidea eta jakintza arloen eta irakasgaien arteko diziplinartekotasuna. Jarduera hauek ikasleak motibatu egiten dituzten tresna didaktikoak dira; ikaslea da azken finean, informazioa lortu, hautatu, eraldatu eta prozesatzen duena; beraz, subjektu aktiboa da. Beste aldetik, errealitatean eta haien interesetatik hurbil dauden proiektuak planteatuz motibatu egiten ditugu ikasleak.

Beraz, ikaslea subjektu aktibo bihurtzen da ikaste prozesuan. Hori kontuan izanik, irakaslearen papera aldatu egiten da. Irakasleak funtzio bi izango ditu: alde batetik, irakasleak ikasleak motibatu egin beharko ditu ikerketa-proiektu motibagarriak eskainiz; eta, beste aldetik, gidatu egin beharko du ikaskuntza-prozesua argibideak eta baliabideak emanez eta esplorazioa bideratuz.

6. Talde-lanaren printzipioa: Zenbait ariketak bakarlanean ematen du etekinik ederrena, baina elkarlanean aritzeak garrantzi handia du gaur egun. Beraz, bi eratako jarduerak planteatzen ditugu unitate guztietan.

7. Diziplinartekotasunaren printzipioa: Proposatzen ditugun jardueren bidez arlo desberdinetako jakintzak uztartzen dira; beraz, oinarrizko gaitasunen garapena bermatzen da. Ezin ahaztu, bestalde, euskara komunikazio-tresna dela eta, beraz, ezinbesteko tresna dela edozein giza harremanetarako.

4	BALIABIDEAK	
TESTU LIBURUA : Euskara eta Literatura. Eragin. DBH 3		EDITORIALA: Zubia Santillana
Oinarri dugu testu-liburuaz gain, irakurketa-liburuak, prentsako artikuluak, filmak, kantuak, bertsoak, eta abar ere erabiliko ditugu. Ikasturte honetan, hiru nobela hauek izango ditugu irakurgai: Mariasun Landaren <i>Krokodiloa ohe azpian</i>, Janne Teller-en <i>Ezer ez eta</i> Miren Agur Meaberen <i>Urtebete itsasargian</i>. Hiruhileko bakoitzean bat irakurri eta landuko dugu. Testu-liburuaz eta paperezko koadernoaz gain, ordenagailua eta Google-n Classroom edo Ikasgela birtuala ere ezinbesteko tresna izango dugu ikasketa-prozesuan, ia lanketa gehienetarako: informazioa bilatzeko, ariketak eta idazlanak egiteko, ikus-entzunezkoak baliatzeko, dokumentuak partekatzeko, elkarlanean aritzeko, etab. Internet bidez iritsiko gara hiztegi, entziklopedia, euskarazko hedabide eta ikus-entzunezko plataformetara: Elhuyar hiztegia, Wikipedia, Berria, Argia, You Tube, etab. Ikastetxeko euskarazko haur eta gazte literaturari eskainitako bloga ere hortxe izango dugu erabilgarri: http://aralarbhigazteliteratura.blogspot.com.es/ .		
5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA ADIERAZLEAK. KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK	

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ahozko testuak ulertu eta sortu ditu.

Badaki idatzizko testuak sortzen, koherentziaz, kohesioz eta zuzentasunez.

Literaturaz gozatu du. Poesiak eta bertsoak errezitatu eta kantatzen ditu.

Aditza eta deklinabidea zuzen erabiltzen ditu.

Oinarrizko gramatika-kategoriak ezagutzen ditu: aditza, izena, izenondoa, etab.

Idazkietan zuzentasuna zaintzen du.

Aniztasunari ere arreta eskainiko zaio; horretarako, ikasle bakoitza bere aniztasunean tratatuko eta aztertuko da, zer beharrian, gaitasun, zailtasun, indargune eta ahulgune dituen antzemateko, eta ondoren horien arabera egokitzapenak egiteko. Proposatuko dizkiogun jarduera, lan, froga eta azterketak ere egokitu egingo zaizkie egoera horretan dauden ikasleei. Halakoetan, ikaslearen jarrerak eta egunean eguneko lanak, baita sorkuntza-lanak ere, aparteko pisua eta garrantzia izango du.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Jarrerak (eguneroko lana, arreta eta interesa, jokabidea) %20.

Irakurketa-liburuaren lanketak %10.

Ahozkoak %10.

Idazmenak %30.

Eta hizkuntz gaitasunen, gramatika- eta hiztegi-edukien eta literaturaren inguruko azterketak % 30.

Atal bakoitzean gutxienezko bat lortu beharko da ikasgaia gainditzeko.

Ikasleei ikasturte hasieran emango zaie kalifikazio-irizpideen berri.

Eguneroko lana, etxerako lanak eta gelako jarrera positibo eta negatiboen bidez ebaluatuko da.

Ebaluazio jarraia izango du ikasgaiak

TRESNAK

Irakaslearen behaketa-lana, entzutezko eta irakurtzeko testuen ulermen-frogak, gramatika-, hiztegi- eta literatur edukiak lantzeko ariketak, idazlanak, ahozko jarduerak eta azterketak.

6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
Beharrezko ikusiz gero, indartze-lanak, aparteko lanak eskainiko zaizkie ikasleari.	Hurrengo ebaluaketa gaindituz gero, aurrekoa gaindituko zaio. Beharrezkoa ikusiz gero, lanak emango zaizkie ikasleei.